ESP. KODEA.	**2021OBMA006**

ESPEDIENTEA	**BEASAINGO MARIARATS KALEKO MENDI-HEGALA EGONKORTZEKO OBRAK / OBRAS DE ESTABILIZACIÓN DE LA LADERA DE LA CALLE MARIARATS**
TITULARRA	**BEASAINGO UDALA-HIRIGINTZA**
TOKIA	**MARIARATS KALEA, BEASAIN**

ADMINISTRAZIO KLAUSULA BEREZIEN PLEGUA PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ ESLEITZEKO, BEASAINGO MARIARATS KALEKO MENDI-HEGALA EGONKORTZEKO OBRAK	**PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA ADJUDICAR POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO LAS OBRAS DE ESTABILIZACIÓN DE LA LADERA DE LA CALLE MARIARATS**
XEDAPEN OKORRAK	**DISPOSICIONES GENERALES**
1. klausula - Araubide juridikoa	**Cláusula 1.- Régimen jurídico**
Agiri honek arautzen duen kontratua, 2017ko Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko (aurrerantzean SPKL) 25. artikuluaren arabera, administratiboa da. Kontratuaren prestakuntzari, esleipenari, eraginei eta iraungipenari dagokionez, aipaturiko artikuluan aurreikusi gabekoetan, kontratazioari buruzko estatuko oinarrizko legeria bete beharko du: lehenik, 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa, zeinak estatuko ordenamendu juridikora ekartzen dituen Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak, 2014ko otsailaren 26koak; bigarrenik, Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean HAKLEO), urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren	El contrato que regula el presente pliego tiene carácter administrativo conforme a lo señalado en el artículo 25 de la LCSP 2017 y se regirá , en cuanto a su preparación, adjudicación, efectos y extinción, en lo no previsto en el mismo por la legislación básica del Estado en materia de contratación: la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, en adelante LCSP, por el Reglamento General de la Ley de Contratos de las Administraciones Públicas, aprobado por Real Decreto 1098/2001, de 12 de Octubre, en cuanto no

bitartez onartua, baldin eta SPKLren kontrakoa ez bada; hirugarrenik, 817/2009 Errege Dekretua, maiatzaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legea partzialki garatzen duena; eta azkenik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legea. Osagarri gisa aplikatu dira oinarrizkoak ez diren estatuko kontratazioari buruzko arauak, administrazio-zuzenbideari buruzko gainerako arauak eta, horrelakorik ezean, zuzenbide pribatuari buruzkoak.	se oponga a lo establecido en la LCSP, en adelante RGLCAP y por el Real Decreto 817/2009, de 8 de mayo, por el que se desarrolla parcialmente la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público y por la de Régimen Local, aplicándose, supletoriamente las normas estatales sobre contratación que no tengan carácter básico, las restantes normas de derecho administrativo y, en su defecto, las de derecho privado.
Alderdiek agiri honetan, baldintza teknikoen agirian eta erantsitako dokumentazio grafikoan ezarritakoa bete behar dute; agiri horiek guztiak kontratuzkoak izango dira. Kontratua agiri honetako edukiarekin bat etorriko da; alde horretatik, agiriko klausulak kontratuaren parte izango dira. Agiri hau eta kontratuzko gainerako dokumentazioa bat ez badatoz, agiri hau nagusituko da.	Las partes quedan sometidas expresamente a lo establecido en el presente pliego, en el pliego técnico y en la documentación gráfica adjunta, que revestirán carácter contractual. El contrato se ajustará al contenido del presente pliego, cuyas cláusulas se entenderán parte integrante de aquél. En caso de discrepancia entre el presente pliego y el resto de documentación que reviste carácter contractual, prevalecerá el presente pliego.
2. klausula. Esleitzeko prozedura, espedientea izapidetzeko modua Kontratua ez dago erregulazio bateratuaren mende (2017ko SPKLko 22.1c) eta 19. Artikuluen arabera) eta horrela azaltzen da **Kontratu Ezaugarri koadroaren 3. atalean**. Kontratua prozedura irekia eta sinplifikatuaren bidez esleituko da, 2017ko SPKLko 159. artikuluaren arabera eta izapidetuko da aipatutako 3. atalaren arabera.	**Cláusula 2.- Procedimiento de adjudicación y forma de tramitación del expediente** El contrato no se encuentra sujeto a regulación armonizada como así se hace constar en el **apartado 3 del Cuadro de Características del Contrato**, de conformidad con lo señalado en los artículos 22 y 19 de la LCSP 2017. El contrato se adjudicará mediante procedimiento abierto simplificado conforme al artículo 159 de la LCSP 2017, y se tramitará de acuerdo con lo señalado en el citado **apartado 3**.

3. klausula. Kontratuaren premia eta egokitasuna eta kontratazioaren eraginkortasuna Kontratu hau prestatzeko dokumentazioan justifikatu dira, 2017ko SPKLko 28. artikuluari jarraikiz, helburu instituzionalak, kontratuaren bitartez bete beharreko premia administratiboen izaera eta hedadura, kontratuaren xedearen eta edukiaren egokitasuna premia horiek betetzeko eta kontuan hartutako faktore guztiak.	**Cláusula 3.- Necesidad e idoneidad del contrato y eficiencia en la contratación** En la documentación preparatoria del presente contrato se justifican, conforme a lo señalado en el artículo 28 de la LCSP 2017 los fines institucionales, la naturaleza y extensión de las necesidades administrativas a satisfacer mediante el mismo, la idoneidad de su objeto y contenido para satisfacerlas, así como los factores de todo orden tenidos en cuenta.
4. klausula - Kontratuaren helburua Plegu honetako **Kontratuko Ezaugarrien Koadroko 2. atalean** aipatzen da kontratuaren helburua. Kontratazioa **EZ** da **lotetan zatituko.**	**Cláusula 4.- Objeto del contrato** Constituye el objeto del contrato al que se refiere el presente pliego en el **apartado 2 del Cuadro de Características de**l **Contrato**. La contratación **NO se fracciona en lotes.**

5. klausula. Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua	**Cláusula 5.- Presupuesto base de licitación**
Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua, hau da, toki-erakundeko kontratazio-organoak kontratuaren arabera gehienez agindu dezakeen gastua, balio erantsiaren gaineko zerga barne (partida bereizi gisa dago jasoa, 2017ko SPKLko 100.1 artikuluari jarraikiz), **kontratuaren ezaugarrien koadroko 4. atalean** dago jasoa. Aurrekontu horrek barne hartzen ditu kontratua gauzatzeko kostu zuzen eta zeharkakoak eta bestelako behin-behineko kostuak.	El presupuesto base de licitación que opera como límite máximo de gasto que en virtud del contrato puede comprometer el órgano de contratación competente en cada caso de esta Entidad Local, incluido el Impuesto sobre el Valor Añadido, que se indica como partida independiente, conforme a lo señalado en el artículo 100.1 de la LCSP 2017, asciende a la cantidad expresada en el **apartado 4 del Cuadro de Características del Contrato**, e incluye los costes directos e indirectos y otros eventuales gastos precisos para su ejecución.
6. klausula. Kreditua	**Cláusula 6.- Existencia de crédito**
Kreditu nahikoa dago, **kontratuaren ezaugarrien koadroko 4. atalean** jasotako lizitazioaren oinarrizko aurrekontuari dagokion zenbatekora arte. Koadroan daude zehaztuta urterokoak, aurrekontuaren erabilera, dagozkien portzentajeekin.	Existe crédito suficiente hasta el importe del presupuesto base de licitación recogido en el **apartado 4 del Cuadro de Características del Contrato** distribuido en las anualidades que en el mismo se indican, y con cargo a las aplicaciones presupuestarias que en él se señalan.
7. klausula. Kontratua gauzatzeko epea eta luzapena	**Cláusula 7.- Plazo de ejecución**
Kontratua gauzatzeko epea **kontratuaren ezaugarrien koadroko 17. atalean** dago zehaztuta, esleipendun suertatuko den lizitatzaileak aurkeztutako eskaintzak adierazitako epearen kalterik gabe.	El plazo total de ejecución del contrato figura en el **apartado 17 del Cuadro de Características del Contrato**, sin perjuicio del plazo que determine la oferta presentada por el licitador que resulte adjudicatario.
Kontratistak, kontratua gauzatzeko epea bete behar du.	El contratista está obligado a cumplir el contrato dentro del plazo fijado para la realización del mismo.

8. klausula. Kontratazio-organoa	**Cláusula 8.- Órgano de contratación**
Toki-erakundearen izenean zer kontratazio-organok jardungo duen **kontratuaren ezaugarrien koadroko 1. atalean** dago zehaztua eta 2017ko SPKLko 61. artikuluan eta bigarren xedapen gehigarrian ezarritako eskumenak izango ditu.	El órgano de contratación, que actúa en nombre de la Entidad Local es el que se señala en el **apartado 1 del Cuadro de Características del Contrato**, en virtud de las facultades que le confieren los artículos 61, la Disposición adicional segunda de la LCSP 2017.
Organo horrek kontratua esleitzeko ahalmena du eta, beraz, eskumen hauek ditu: kontratua interpretatzea, kontratua betetzerakoan sortzen diren zalantzak argitzea, interes publikoko arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratua iraungitzea eta iraungitzearen ondorioak zehaztea; hori, aplikatu behar den araudiaren arabera.	Dicho órgano tiene facultad para adjudicar el contrato y, en consecuencia, ostenta las prerrogativas de interpretarlo, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlo por razones de interés público, acordar su resolución y determinar los efectos de ésta, con sujeción a la normativa aplicable.
Kontratazio-organoak horretarako adosten dituen akordioak (aurrez txosten juridikoa egin behar da) betearazleak izango dira berehala. Dena den, kontratistak akordioa inpugnatu dezake eskumena duen jurisdikzioaren aurrean.	Los acuerdos, previo informe jurídico, que a este respecto dicte serán inmediatamente ejecutivos, sin perjuicio del derecho del contratista a su impugnación ante la jurisdicción competente.

9. klausula. Kontratatzailearen profila	**Cláusula 9.- Perfil de contratante**
2017ko SPKLko 63. artikuluari jarraikiz, toki-erakundearen kontratuzko jarduerari buruzko informazioa gardena eta eskuragarria izan dadin ziurtatze aldera, kontratatzailearen profilaren bitartez haren kontratuzko jarduerari buruzko informazioa emango da, kontratu honi dagozkion iragarkiak, agiri hau, agiri teknikoa eta proiektua barne.	Conforme al artículo 63 de la LCSP 2017 y con el fin de asegurar la transparencia y el acceso público a la información relativa a la actividad contractual de esta Entidad Local, se facilita a través del Perfil de Contratante de la misma toda la información relativa a su actividad contractual, incluyendo los anuncios relativos al presente contrato, el presente pliego y planos del estado actual de la planta y de la sección.
Profilak informazio hau du: toki-erakundeko kontratazio-organoarekin harremanetan aritzeko behar den informazio orokorra, topaguneak, telefono- eta fax-zenbakiak, posta-helbidea eta helbide elektronikoa, iragarkiak eta baldintzen agiriak eta egiten dituen kontratuei buruzko infomazioa.	El Perfil incluye tanto la información de tipo general precisa para relacionarse con el órgano de contratación de la Entidad Local, como puntos de contacto, números de teléfono y de fax, dirección postal y dirección electrónica, informaciones, anuncios y pliegos de condiciones, así como la información particular relativa a los contratos que celebre.
Profila interesdun guztiek ikus dezakete, kontratuaren ezaugarrien koadroko **1. atalean** zehaztutako helbidean.	El perfil será accesible para todos los interesados desde la dirección que se señala en el **apartado 1 del Cuadro de Características del Contrato**.
LIZITAZIOA ETA ESLEIPENA	**LICITACION Y ADJUDICACIÓN**
10. klausula. Ahalmena eta kaudimena	**Cláusula 10.- Capacidad y solvencia**
Ahalmena	**Capacidad**
Jarduteko gaitasun osoa duten Espainiako edo atzerriko pertsona natural edo juridikoek bakarrik egin ahal izango dituzte kontratuak sektore publikoarekin, betiere 2017ko SPKLko 71. artikuluan zehaztutako kontratatzeko debekuren bat ez badute eta kaudimen ekonomiko eta finantzarioa edo gaitasun tekniko eta profesionala egiaztatu	Sólo podrán contratar con el sector público las personas naturales o jurídicas, españolas o extranjeras, que tengan plena capacidad de obrar, no estén incursas en alguna prohibición de contratar de las señaladas en al artículo 71 de la LCSP 2017, y acrediten su solvencia económica y financiera y técnica o profesional o, en los

badituzte edo, legeak hala eskatzen duenean, behar bezala sailkatuta badaude.	casos en que sea exigible, o se encuentren debidamente clasificadas.
Kontratistek kontratuaren xede diren zerbitzuak eskaintzeko behar diren gaitasun enpresarial eta profesionalak eduki behar dituzte. Pertsona juridikoak erakundearen sortze-estatutu edo -arauei jarraikiz dagozkien xede, helburu edo jarduera-esparruekin zerikusia duten kontratuen esleipendun bakarrik izan daitezke. Erkidegoko enpresei, Europako Esparru Ekonomikoari buruzko akordioa sinatu duten estatuetako enpresei eta erkidegotik kanpoko enpresei dagokienez, 2017ko SPKLko 68. eta 69. artikuluak bete behar dituzte.	Los contratistas deberán contar, con la habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de las prestaciones que contribuyan al objeto del contrato. Las personas jurídicas sólo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto o ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios. En lo que respecta a las empresas comunitarias o de Estados signatarios del Acuerdo sobre el Espacio Económico Europeo y las empresas no comunitarias se estará a lo dispuesto en los artículos 68 y 69 de la LCSP 2017.
Sektore publikoarekin kontratuak egin ditzakete, halaber, horretarako eratzen diren aldi baterako enpresa-elkarteek. Kontratazio Mahaiak, kolusiorik badago, erabakiak hartzeko eskumena izango du, 2017ko SPKLko 69. artikuluari jarraikiz. Elkarteak ez dira zertan eskritura publikoan formalizatu kontratua haiei esleitu arte. Eskaintza aldi baterako elkartuta aurkezten duten enpresaburuek betebehar solidarioa izango dute eta elkartearen ordezkari edo ahaldun bakar bat izendatu beharko dute. Ahaldun horrek kontratutik eratorritako eskubideak erabiltzeko eta eginkizunak betetzeko ahalorde askietsia eduki behar du, kontratua iraungitzen den arte. Dena den, enpresek zenbateko handiak kobratzeko eta ordaintzeko ahalorde mankomunatuak eduki ditzakete. Aldi baterako elkartean bat eginda lehiatu nahi duten enpresaburuek elkartea osatzen duten enpresaburu guztien izen-abizenak	Podrán contratar con el sector público las uniones de empresarios que se constituyan temporalmente al efecto, sin perjuicio de las facultades de la Mesa de Contratación cuando existan indicios de colusión, conforme al artículo 69 de la LCSP 2017, sin que sea necesaria la formalización de las mismas en escritura pública hasta que se haya efectuado la adjudicación del contrato a su favor. Los empresarios que concurran agrupados en uniones temporales quedarán obligados solidariamente y deberán nombrar un representante o apoderado único de la unión con poderes bastantes para ejercitar los derechos y cumplir las obligaciones que del contrato se deriven hasta la extinción del mismo, sin perjuicio de la existencia de poderes mancomunados que puedan otorgar para cobros y pagos de cuantía significativa.

eta partaidetza zehaztu behar dituzte. Horrez gain, kontratuaren esleipendun izanez gero aldi baterako elkartea eratuko dutelako konpromisoa hartu dutela adierazi behar dute. Enpresen aldi baterako elkarteen iraunaldia kontratuarena izango da, gutxienez.	Los empresarios que deseen concurrir integrados en una unión temporal deberán indicar los nombres y circunstancias de los que la constituyan y la participación de cada uno, así como que asumen el compromiso de constituirse formalmente en unión temporal en caso de resultar adjudicatarios del contrato. La duración de las uniones temporales de empresarios será coincidente, al menos, con la del contrato hasta su extinción.
Kaudimena Enpresaburuek egiaztatu behar dute kaudimen ekonomiko eta finantzario eta kaudimen profesional edo tekniko nahikoa dutela, 2017ko SPKLko 86., 87. eta 90. artikuluetan ezarritakoaren arabera. Hain zuzen ere, **Kontratu Ezaugarri koadroaren 6. atalean**. Behar den kaudimena egiaztatzeko, enpresaburuak beste erakunde batzuen kaudimena eta baliabideak har ditzake oinarritzat, haiekin duen loturaren izaera juridikoa edozein dela. Hori, betiere, kontratuak irauten duen bitartean kaudimen eta baliabide horiek izango dituela egiaztatzen badu eta erakunde horiek kontratatzeko debekurik ez badute. Halaber, aldi baterako elkarteetan bat eginda lehiatzen duten enpresaburuek elkarteaz kanpoko erakundeen ahalmena erabil dezakete. Alde horretatik, beste erakunde batzuen ahalmenez baliatu nahi duten enpresek behar dituzten baliabideak eskura izango dituztela egiaztatu behar dute. Gauzak	**Solvencia** Los empresarios deberán acreditar estar en posesión de las condiciones mínimas de solvencia económica y financiera y profesional o técnica de conformidad con lo previsto en los artículos 86, 87 y 90 de la LCSP 2017, que se señalan en el **apartado 6 del Cuadro de Características del Contrato**. Para acreditarse la solvencia necesaria, el empresario podrá basarse en la solvencia y medios de otras entidades, independientemente de la naturaleza jurídica de los vínculos que tenga con ellas, siempre que demuestre que durante toda la duración de la ejecución del contrato dispondrá efectivamente de esa solvencia y medios, y la entidad a la que recurra no esté incursa en una prohibición de contratar. En las mismas condiciones, los empresarios que concurran agrupados en las uniones temporales podrán recurrir a las capacidades de entidades ajenas a la unión temporal. Para ello la empresa que desee recurrir a las capacidades de otras entidades, demostrará que va a disponer de los

horrela, eskaintza onena aurkeztu duen lizitatzaileak erakunde horien idatzizko konpromisoa aurkeztu behar du, 2017ko SPKLko 150. artikuluan ezarritakoaren arabera, horretarako errekerimendua jaso ondoren.	recursos necesarios mediante la presentación a tal efecto del compromiso por escrito de dichas entidades, compromiso que se presentará por el licitador que hubiera presentado la mejor oferta de conformidad con lo dispuesto en el artículo 150 de la LCSP 2017, previo requerimiento a tal efecto.
11. klausula. Kontratua esleitzeko eta berdinketa hausteko irizpideak Kontratua esleitzeko esleipen irizpideak eta beraiei emandako ponderazioak hartuko dira kontuan eta haztapena erlatiboa izango da, garrantzi handiena duenetik txikienera, **Kontratu Ezaugarri koadroaren 9. atalean** ezarritakoaren arabera. Kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren bi eskaintza edo gehiagok puntuazio bera badute, **Kontratu Ezaugarri koadroaren 9. atalean** ezarritako irizpideak aplikatuko dira, 2017ko SPKLko 147. artikuluaren arabera eta ez badude berdinketa irizpide sozial hauek aplikatuz hautsiko da (irizpideak eskaintzak aurkezteko epea amaitu ondoren bete behar dituzte enpresek):	**Cláusula 11.- Criterios de adjudicación y desempate** Para la adjudicación del contrato se tendrán en cuenta los criterios de adjudicación del contrato con la ponderación relativa de los mismos, en su caso, el orden decreciente de importancia que se les atribuye en el **apartado 9 del Cuadro de Características del Contrato**. Cuando tras la aplicación de los criterios de adjudicación, se produzca un empate entre dos o más ofertas se aplicarán los criterios vinculados al objeto del contrato, que se señalen, en su caso, en el mencionado **apartado 9** conforme al artículo 147 de la LCSP 2017, y en su defecto, el empate se resolverá, mediante la aplicación por orden de los siguientes criterios sociales, referidos al momento de finalizar el plazo de presentación de ofertas:
• - Enpresen langile-taldean desgaitasunak dituzten edo gizarteak baztertuta dauden langileen portzentajea handiagoa izatea. Enpresek portzentaje bera badute, desgaitasuna duten langile finko gehien edo gizarteratzeko hartutako langile gehien dituena gailenduko da. • - Enpresen langile-taldean aldi baterako kontratuen portzentajea txikiagoa izatea. • - Enpresen langile-taldean emakume-portzentajea handiagoa izatea. • - Irizpide horiek aplikatu ondoren berdinketa ez bada hausten, zozketa egingo da.	• **-** Mayor porcentaje de trabajadores con discapacidad o en situación de exclusión social en la plantilla de cada una de las empresas, primando en caso de igualdad, el mayor número de trabajadores fijos con discapacidad en plantilla, o el mayor número de personas trabajadoras en inclusión en la plantilla. • **-** Menor porcentaje de contratos temporales en la plantilla de cada una de las empresas • **-** Mayor porcentaje de mujeres empleadas en la plantilla de cada una de las empresas.

Berdinketa hausteko irizpideak egiaztatzeko agiriak berdinketa gertatzen denean aurkeztu behar dituzte lizitatzaileek, ez lehenago.	• - El sorteo, en caso de que la aplicación de los anteriores criterios no hubiera dado lugar a desempate. La documentación acreditativa de los criterios de desempate será aportada por los licitadores en el momento en que se produzca el empate, y no con carácter previo.
12. klausula. Proposamenak aurkeztea Proposamenak lizitazioa zuzentzen duten agiri eta dokumentuetan ezarritakoaren arabera aurkeztu behar dira. Aurkeztuz gero, enpresaburuak baldintzarik gabe onartzen ditu klausula eta baldintza guztiak, salbuespenik gabe, eta baimena ematen die kontratazio-mahaiari eta kontratazio-organoari Sektore Publikoko Lizitatzaileen eta Enpresa Sailkatuen Erregistro Ofizialean edo Europar Batasuneko estatu-kideen operadore ekonomikoen zerrenda ofizialetan jasotako datuak kontsultatzeko. Proposamenak ezkutukoak izango dira eta hori ziurtatzeko behar diren neurriak jarriko dira, proposamenak ireki bitartean. Lizitatzaile batek banakako proposamena aurkezten badu, ezin du aldi baterako elkarte baten proposamenik sinatu. Halaber, lizitatzaileak ezin dira aurkeztu aldi baterako elkarte bat baino gehiagorekin. Lizitatzaile batek arau horiek urratzen baditu, ez da onartuko hark sinatutako proposamen bat ere. Proposamenean jasanarazi beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren zenbatekoa jaso behar da, partida bereizi gisa.	**Cláusula 12.- Presentación de proposiciones** Las proposiciones de los interesados deberán ajustarse a los pliegos y documentación que rigen la licitación, y su presentación supone la aceptación incondicionada por el empresario del contenido de la totalidad de sus cláusulas o condiciones, sin salvedad o reserva alguna, así como la autorización a la mesa y al órgano de contratación para consultar los datos recogidos en el Registro Oficial de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o en las listas oficiales de operadores económicos de un Estado miembro de la Unión Europea. Las proposiciones serán secretas y se arbitrarán los medios que garanticen tal carácter hasta el momento de apertura de las proposiciones. Tampoco podrá suscribir ninguna propuesta en unión temporal con otros si lo ha hecho individualmente o figurar en más de una unión temporal. La infracción de estas normas dará lugar a la no admisión de todas las propuestas por él suscritas. En la proposición deberá indicarse, como partida independiente, el importe del

	Impuesto sobre el Valor Añadido que deba ser repercutido.
1. Bitartekoak Proposamenak sektore publikoko kontratazio-plataforman aurkeztuko dira. Proposamenak sektore publikoko kontratazio-plataforman aurkeztu beharko dira, SPKLren 347. artikuluan aurreikusitakoaren arabera..	**1.- *Medios*** La presentación de proposiciones se realizará **en la plataforma de contratación del sector público.** Las proposiciones deberán presentarse **en la plataforma de contratación del sector público**, conforme a lo previsto en el artículo **347 del LCSP.**
2. Agiriak eta dokumentazio osagarria eskuratzea Toki-erakundeak kontratatzailearen profila medio (**ezaugarrien koadroko 1. atala**) jarriko ditu interesdunaren eskura agiriak eta gainerako dokumentazio osagarria, bitarteko elektronikoen bidez, lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunetik; sarbidea librea, zuzena, erabatekoa eta doakoa izango da. 2017ko SPKLko 159.2 artikuluan zehaztutakoaren arabera, eskaintza aurkezteko behar den dokumentazio guztia bitarteko elektronikoen bidez egongo da eskura iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den egunetik.	**2.- *Acceso a los pliegos y demás documentación complementaria*** El acceso a los pliegos y demás documentación complementaria se ofrecerá por esta Entidad Local a través del perfil de contratante (**apartado 1** del cuadro de características), por medios electrónicos, acceso que será libre, directo, completo y gratuito, y que se efectuará desde la fecha de la publicación del anuncio de licitación. De acuerdo con lo señalado en el artículo 159.2 de la LCSP 2017 toda la documentación necesaria para la presentación de la oferta estará disponible por medios electrónicos desde el día de la publicación del anuncio en dicho perfil de contratante
3. Informazio osagarria Toki-erakundearen kontratazio-organoek, eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino gutxienez sei egun lehenago, lizitazio-prozeduran parte hartzea interesatzen zaien guztiei emango dizkie agirien gaineko informazio osagarria eta haiek eskatutako dokumentazio osagarri guztia. Betiere, interesdunek proposamenak aurkezteko epea amaitu baino gutxienez 12 egun lehenago eskatu behar dute informazio hori.	**3.- *Información adicional*** Los órganos de contratación de la Entidad Local proporcionarán a todos los interesados en el procedimiento de licitación, a más tardar 6 días antes de que finalice el plazo fijado para la presentación de ofertas, la información adicional sobre los pliegos y demás documentación complementaria que éstos soliciten, a condición de que la hubieren pedido al menos 12 días antes del transcurso del plazo de presentación de las proposiciones.

Erantzunak lotesleak izango dira eta kontratatzailearen profilean argitaratuko dira.	Las respuestas tendrán carácter vinculante y se publicarán en el perfil de contratante.
4. Tokia eta epea Proposamenak kontratatzailearen profilean argitaraturiko lizitazio-iragarkian adierazitako tokian eta epean aurkeztu behar dira. Proposamenak aurkezteko epea **hogei egunekoa** da, kontratatzailearen profilean kontratuaren lizitazio-iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, 2017ko SPKLko 159.3. artikuluari jarraikiz (**Kontratu Ezaugarri koadroaren 10. atala**).	**4.- *Lugar y plazo*** Las proposiciones se presentarán en el lugar y plazo señalado en el anuncio de licitación publicado en el Perfil del Contratante. El plazo para presentar las proposiciones será **de veinte días naturales**, contados desde el día siguiente al de la publicación del anuncio de licitación del contrato en el perfil de contratante conforme al artículo 159,3 de la LCSP 2017 (**apartado 10 del Cuadro de Características del Contrato**).
5. Konfidentzialtasuna 2017ko SPKLko 133. artikuluaren arabera, toki-erakundeak ez du ezagutzera emango enpresaburuek eskaintza aurkezterakoan konfidentzialtzat jo duten informazioa. Konfidentzialak izango dira, besteak beste, sekretu tekniko edo komertzialak, eskaintzen isilpeko gaiak eta lizitazio-prozedura honetan edo hurrengoetan lehia desitxuratzeko erabil daitekeen gainerako informazio guztia. Kontratazio-organoari eta haren mendeko zerbitzuei informazioa isilpean gordetzeko dagokien betekizuna ezin da esleipendunaren eskaintzaren eduki osora hedatu.	**5.- *Confidencialidad*** De acuerdo con el artículo 133 de la LCSP 2017 la entidad local no divulgará la información facilitada por los empresarios que éstos hayan designado como confidencial en el momento de presentar su oferta. El carácter de confidencial afecta, entre otros, a los secretos técnicos o comerciales, a los aspectos confidenciales de las ofertas y a cualesquiera otras informaciones cuyo contenido pueda ser utilizado para falsear la competencia, ya sea en ese procedimiento de licitación o en otros posteriores. El deber de confidencialidad del órgano de contratación, así como de sus servicios dependientes no podrá extenderse a todo el contenido de la oferta del adjudicatario.

Halaber, informazioa isilpean gordetzeko betekizunak ezin du eragotzi egindako kontratuetan konfidentzialak ez diren parteak ezagutzera ematea. Alde horretatik, betiere, Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Legean ezarritakoa beteko da.	El deber de confidencialidad tampoco podrá impedir la divulgación pública de partes no confidenciales de los contratos celebrados, respetando en todo caso lo dispuesto en la Ley Orgánica 15/1999, de 13 de diciembre, de Protección de Datos de Carácter Personal.
13. klausula. Proposamenen edukia Lizitatzaileek proposamena aurkeztuko dute, 2017ko SPKLko 159.4d) artikuluaren arabera, kartazal bakar batean. Kartazala itxita aurkeztuko da eta lizitatzaileak edo ordezkatzen duen personak sinatuta. Adieraziko da edukia zein den eta lizitatzailearen izena. Kartazalaren barnean orri batean adieraziko da edukia zein den modu ordenatuan zenbatuta. Espainian kontratua egin nahi duten atzerriko enpresek dokumentazioaren gaztelaniazko edo euskarazko itzulpen ofizialak aurkeztu behar dituzte.	**Cláusula 13.- Contenido de las proposiciones** Los licitadores deberán presentar la proposición de acuerdo con el artículo 159.4.d) de la LCSP 2017 en un único sobre. El sobre, se presentará cerrado y firmado por el licitador o persona que lo representa haciendo constar su respectivo contenido y el nombre del licitador. En el interior del sobre se hará constar en hoja independiente su contenido, ordenado numéricamente. Las empresas extranjeras que contraten en España presentarán la documentación traducida de forma oficial al castellano o al euskera.
1.-*A Gutun-azala* **IZENBURUA: Dokumentazio Administratiboa eta formula bidez ebaluatu daitezkeen irizpideekiko dokumentazioa.** Edukia Dokumentazio administratiboa. **A Gutun-azalean** erantzukizunpeko adierazpena barneratuko da, **1. ERANSKIN** modura atxikitzen den kontratazioko	**1.- *Sobre A*** **TÍTULO: Documentación Administrativa y documentación relativa a criterios evaluables mediante formulas** Contenido Documentación administrativa. El **Sobre A** incluirá declaración responsable que se ajustará al formulario de documento europeo único de contratación que se adjunta como **ANEXO**

Europako agiri bakarraren inprimakiaren araberakoa izango dena, sinatuta egon beharko dena eta dagokion identifikazioarekin, lizitatzaileak zera adieraziz, 2017ko SKPL Legearen 159.4.c) artikuluaren arabera: • -Sinatzailea eskaintza aurkezten duen sozietatearen ordezkaria dela. • -Dagokion kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa duela edo, hala badagokio, dagokion sailkapena. • -Jarduera burutzeko beharrezkoak diren baimenak dituela • -Ez duela kontratatzeko inolako debekurik • -Lizitatzaileak beste erakunde batzuen gaitasunak baliatu nahi dituenean, erakunde horiek beharrezkoak diren bitartekoak dituztela adierazteko idatzizko konpromisoa. • -Enpresa atzerrikoa balitz, Espainiako foruaren mende egotea. • -Eskaintza aldi baterako elkartze batek aurkeztuko balu, elkartzea eratzeko konpromisoa gaineratu beharko da. Aurreko ataletan gaitasunari, kaudimenari eta debekurik ezari buruz aipatzen diren inguruabarrak eskaintzak aurkezteko azken datan eman beharko dira eta kontratua hobetzeko unean indarrean izan beharko dira. 3. ERANSKINA ere sartu egin beharko da.	**1**, que deberá estar firmada y con la correspondiente identificación, en la que el licitador ponga de manifiesto de acuerdo con el artículo 159.4.c) de la LCSP 2017 que: • - El firmante ostenta la representación de la sociedad que presenta la oferta • - Cuenta con la adecuada solvencia económica, financiera y técnica o, en su caso, la clasificación correspondiente. • - Posee las autorizaciones necesarias para ejercer la actividad • - No está incurso en prohibición de contratar alguna • - Cuando el licitador desee recurrir a las capacidades de otras entidades, compromiso por escrito de dichas entidades de que va a disponer de los recursos necesarios. • - En el caso de que la empresa fuera extranjera, sometimiento al fuero español. • - En el supuesto de que la oferta se presentará por una unión temporal de empresarios, deberá acompañar el compromiso de constitución de la unión. Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar a las que se refieren los apartados anteriores, deberán concurrir en la fecha final de presentación de ofertas y subsistir en el momento de perfección del contrato. También se deberá incluir el ANEXO 3.
Formula bidez ebaluatu daitezkeen irizpideekiko dokumentazioa Gutun-azal honetan eskaintza ekonomikoa eta formula bidez ebaluatu daitezkeen	Documentación relativa a criterios evaluables mediante fórmulas En este sobre se incluirá la oferta económica y la restante documentación

irizpideei buruzko gainerako dokumentazioa barneratuko da. Eskaintza ekonomikoa, nahiz formula bidez ebalua daitezkeen irizpideak Plegu honetako **2. ERANSKINEAN** atxikitzen den ereduaren araberakoak izango dira. Eskaintza ekonomikoa karaktere irakurgarritan edo makinaz idatzita aurkeztuko da. Hala, kanpoan geratuko dira ez-aipatzeak, erroreak edo Tokiko Erakundeak eskaintza aintzatesteko funtsezkotzat jotzen duena argiro ezagutzea eragozten duten zirriborroak dituztenak.	relativa a criterios evaluables mediante fórmulas. La oferta económica, así como los criterios evaluables mediante fórmulas se ajustarán al modelo que se adjunta como **ANEXO 2** de este Pliego. La oferta económica se presentará en caracteres claros o escrita a máquina, de modo que serán excluidas aquéllas que tengan omisiones, errores o tachaduras que impidan conocer, claramente, lo que la Entidad Local estime fundamental para considerar la oferta.
3.- *Erreferentzia teknikoak* Baldintza Teknikoen Pleguarekin bat etorriz, beste dokumentu batzuk gaineratu behar direnean proposamenak eskatutako zehaztapen teknikoak betetzen dituela egiaztatze aldera, baina horiek balioestekoak ez direnean, hura **A** gutun-azalean edo artxibo elektronikoan gaineratuko da.	**3.- *Referencias técnicas*** Cuando conforme al pliego de prescripciones técnicas deban incluirse otros documentos en orden a permitir verificar que la proposición cumple con las especificaciones técnicas requeridas, pero que no sean objeto de valoración, ésta se incluirá en el sobre o archivo electrónico A.
14. klausula. Kontratazio-mahaia Kontratazio-mahaia legez osatuta dagoela kontsideratuko da Lehendakaria, Idazkaria eta kontratazio organoari aholkularitza juridikoa eskaintzeko zeregina duen funtzionario bat nahiz aurrekontua kontrolatzeko zeregina duen funtzionarioa daudenean. Mahaiaren osaera kontratatzailearen profilean argitaratuko da.	**Cláusula 14.- Mesa de Contratación** La Mesa de contratación se considerará válidamente constituida si lo está por el Presidente, el Secretario, un funcionario de entre quienes tengan atribuido legal o reglamentariamente el asesoramiento jurídico del órgano de contratación y un funcionario que tenga atribuidas las funciones relativas a su control económico-presupuestario. La composición de la Mesa se publicará en el perfil de contratante.
15. klausula – Proposamen, esleipen-proposamen eta publizitatearen azterketa	**Cláusula 15.- Examen de las proposiciones, propuesta de adjudicación y publicidad**

2017ko SPKL Legearen 159.4. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, proposamena barneratzen duten gutun-azalak dagokion hurrenkerak irekiko dira 2017ko SPKL Legearen 145. artikuluan ezarritakoaren arabera, plegu honetan ezarritako esleipen-irizpideak balioesteko aplikagarri den metodoa kontuan hartuz. Kontratazio mahai izango da irekitzeaz arduratuko dena. Irizpide zenbakarrien bidez ebaluatzeko eskaintzaren zatia barneratzen duten gutun-azalak irekitzeko ekitaldia publiko egingo da pleguetan ezarritako formulak aplikatze hutsarekin. Horretarako, pleguaren **2. Eranskin** modura agertzen den eskaintza-ereduan alderdi horiek barneratzen dira.	De acuerdo con lo previsto en el artículo 159.4 de la LCSP 2017 la apertura de los sobres conteniendo la proposición se hará por el orden que proceda de conformidad con lo establecido en el artículo 145 de la LCSP 2017 en función del método aplicable para valorar los criterios de adjudicación establecidos en los pliegos. La apertura se hará por la Mesa de Contratación. Será público el acto de apertura de los sobres que contengan la parte de la oferta evaluable a través de criterios cuantificables mediante la mera aplicación de fórmulas establecidas en los pliegos. A tal efecto, en el modelo de oferta que figura como **Anexo 2** al pliego se contienen estos extremos.
Ekitaldi publiko horren ostean, saio berean, mahaiak urrats hauek jarraituko ditu: • **1.** Hala badagokio, pleguko betekizunak betetzen ez dituzten eskaintzak baztertu ondoren, eskaintzak ebaluatu eta sailkatzea. • **2.** Esleipen-proposamena egitea puntuazio onena lortzen duen hautagaiaren alde. • **3.** Puntuazio onena lortu duen enpresari eskatzea enpresa behar bezala eratuta dagoela, proposamena sinatzen duenak eskaintza egiteko behar besteko ahala duela, eta kaudimen ekonomiko, finantzario eta teknikoa edo, hala badagokio, dagokion sailkapena duela, eta kontratatzeko inolako debekurik ez duela egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu ditzala. • **4.** Puntuazio onena lortu duen enpresari, jakinarazpen elektroniko bidez, behin betiko bermea era dezala eskatzea, nahiz beste erakunde batzuen gaitasunak	Tras dicho acto público, en la misma sesión, la mesa procederá a: • **1.** Previa exclusión, en su caso, de las ofertas que no cumplan los requerimientos del pliego, evaluar y clasificar las ofertas. • **2.** Realizar la propuesta de adjudicación a favor del candidato con mejor puntuación. • **3.** Requerir a la empresa que ha obtenido la mejor puntuación, la aportación de los documentos que acrediten que la empresa está debidamente constituida, el firmante de la proposición tiene poder bastante para formular la oferta, ostenta la solvencia económica, financiera y técnica o, en su caso la clasificación correspondiente y no está incursa en ninguna prohibición para contratar. • **4.** Requerir a la empresa que ha obtenido la mejor puntuación mediante comunicación electrónica para que

baliatu nahi dituenean, erakunde horien idatzizko konpromisoa helaraz dezala, beharrezko baliabideak izango dituela adieraztekoa, hori guztiori 7 egun balioduneko epean, jakinarazpena igortzen denetik zenbatzen hasita.	constituya la garantía definitiva, así como para que aporte cuando desee recurrir a las capacidades de otras entidades, compromiso por escrito de dichas entidades de que va a disponer de los recursos necesarios todo ello en el plazo de 7 días hábiles a contar desde el envío de la comunicación.
2017ko SPKL Legearen hamabosgarren Xedapen Gehigarriarekin bat etorriz, jakinarazpenak helbide elektroniko gaitu bidez edo agerraldi elektroniko bidez egin ahalko dira. Jakinarazpenetik zenbatzeko epeak hura edo, agerraldi elektroniko bidez balitz, jakinarazpenaren abisua, igortzen den egunetik hasiko dira zenbatzen, betiere, jakinarazpenaren xede den egintza kontratazio organoaren kontratatzailearen Profilean egun berean argitaratu bada. Bestela, epeak interesdunak jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera zenbatuko dira.	De conformidad con la Disposición adicional decimoquinta de la LCSP 2017, las notificaciones se podrán realizar mediante dirección electrónica habilitada o mediante comparecencia electrónica. Los plazos a contar desde la notificación se computarán desde la fecha de envío de la misma o del aviso de notificación, si fuera mediante comparecencia electrónica, siempre que el acto objeto de notificación se haya publicado el mismo día en el Perfil de contratante del órgano de contratación. En caso contrario los plazos se computarán desde la recepción de la notificación por el interesado.
Jakinarazpen elektronikoa ukatutzat emateko epea, 39/2015 Legearen 41.5 artikuluan aurreikusitako ondorioekin, hamar egun naturalekoa izango da hura interesdunak jaso duela jakiten denetik hartako edukira iritsi gabe, baldin eta ofizioz edo hartzaileak eskatuta sarbidea teknikoki edo materialki ezinezkoa dela egiaztatzen ez bada.	El plazo para considerar rechazada la notificación electrónica, con los efectos previstos en el artículo 41.5 de la Ley 39/2015, será de diez días naturales computados desde que se tenga constancia de su puesta a disposición del interesado sin que se acceda a su contenido, salvo que de oficio o a instancia del destinatario se compruebe la imposibilidad técnica o material del acceso.

16. klausula. Kontratua esleitu aurretik dokumentazioa aurkeztea	**Cláusula 16.- Presentación de documentación con carácter previo a la adjudicación**
2017ko SPKL Legearen 159.4.f)4. artikuluarekin bat etorriz, mahaiak puntuazio onena lortu duen enpresari, jakinarazpen elektroniko bidez, behin betiko bermea era dezala eskatuko dio, nahiz beste erakunde batzuen gaitasunak baliatu nahi dituenean, erakunde horien idatzizko konpromisoa helaraz dezala, beharrezko baliabideak eta 2017ko SPKL Legearen 76.2. artikuluaren arabera kontratua egikaritzera bideratu edo atxikitzea konpromisoa hartutako bitartekoak egiaz dauzkala egiaztatzeko dokumentuak izango dituela adieraztekoa, hori guztiori **7 egun balioduneko** epean, jakinarazpena igortzen denetik zenbatzen hasita	De acuerdo con el artículo 159.4.f).4.º de la LCSP 2017 la Mesa requerirá a la empresa que haya obtenido la mejor puntuación mediante comunicación electrónica para que constituya la garantía definitiva, así como cuando el licitador desee recurrir a las capacidades de otras entidades, compromiso por escrito de dichas entidades de que va a disponer de los recursos necesarios y la documentación justificativa de que dispone efectivamente de los medios que se hubiese comprometido a dedicar o adscribir a la ejecución del contrato conforme al artículo 76.2 de la LCSP 2017 y todo ello en el plazo de **7 días hábiles** a contar desde el envío de la comunicación.
Proposatutako esleipendunak behin betiko bermea ez badu aipaturiko epean aurkezten, hurrengo lizitatzailearen (eskaintzan sailkatutako ordenan) egingo da esleipen proposamena, epea emanez aipatutako behin betiko bermea aurkezteko.	En caso de que en el plazo otorgado al efecto el candidato propuesto como adjudicatario no presente la garantía definitiva, se efectuará propuesta de adjudicación a favor del siguiente candidato en puntuación, otorgándole el correspondiente plazo para constituir la citada garantía definitiva.
Lizitazioan Europar Batasuneko Estatu kide bateko atzerriko enpresariak edo Europako Esparru Ekonomikoko sinatzaile bat aurkeztuko balira, gaitasuna, kaudimena eta debekurik eza hala Estatu kide bateko operadore ekonomiko baimenduen dagokion zerrenda ofizialean kontsultatuz, nola aipatu alderdiak egiaztatzeko dokumentazioa helaraziz egiaztatu ahal izango da. Azken kasu horretan, behin betiko bermea aurkezteko emandako epearen barnean aurkeztu beharko da aipatu dokumentazioa.	En los casos en que a la licitación se presenten empresarios extranjeros de un Estado miembro de la Unión Europea o signatario del Espacio Económico Europeo, la acreditación de su capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones se podrá realizar bien mediante consulta en la correspondiente lista oficial de operadores económicos autorizados de un Estado miembro, bien mediante la aportación de la documentación acreditativa de los citados extremos, que deberá presentar, en este último caso, en el plazo concedido para la presentación de la garantía definitiva.

17. klausula. Behin betiko bermea	**Cláusula 17.- Garantía definitiva**
Ekonomia aldetik eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileak eskainitako azken prezioaren 100eko 5eko bermea eratu beharko du (BEZ gabe).	El licitador que presente la oferta económicamente más ventajosa deberá constituir a disposición del órgano de contratación una garantía de un 5 por 100 del precio final ofertado por aquéllos, excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido.
Behin betiko bermea 2017ko SPKLko 108. artikuluan zehaztutako moduren batean eratu behar da.	La garantía definitiva podrá prestarse en alguna o algunas de las formas previstas en el artículo 108 de la LCSP 2017.
Behin betiko bermea eratu dela bitarteko elektronikoen bitartez ziurta daiteke.	La acreditación de la constitución de la garantía definitiva podrá hacerse mediante medios electrónicos.
Ekonomia aldetik eskaintza onuragarriena aurkeztu duen lizitatzaileak kontratua esleitu aurreko dokumentazioa aurkezteko jarritako epea baino lehen egiaztatu behar du behin betiko bermea eratu duela.	La acreditación de la constitución de la garantía definitiva por el licitador que hubiera presentado la oferta económicamente más ventajosa deberá acreditar en el plazo conferido para la presentación de la documentación previa a la adjudicación.
Kontratistari eskatutako zigor eta kalte-ordainak behin betiko bermeari egozten zaizkionean, kontratistak bermea berritu edo handitu behar du, dagokion zenbatekoarekin, egotzi eta **hamabost eguneko** epean; bestela, kontratua iraungiko da.	Cuando se hagan efectivas sobre la garantía definitiva las penalidades o indemnizaciones exigibles al contratista, este deberá reponer o ampliar aquélla, en la cuantía que corresponda, en el plazo de **quince días** desde la ejecución, incurriendo en caso contrario en causa de resolución.
Kontratua aldatu eta prezioa ere aldatzen bada, bermea doitu egin behar da, prezio berriaren araberakoa izan dadin; hori, **hamabost eguneko** epean, enpresaburuari kontratua aldatzeko akordioaren berri emandako egunetik kontatzen hasita.	Cuando, como consecuencia de una modificación del contrato, experimente variación el precio del mismo, deberá reajustarse la garantía, para que guarde la debida proporción con el nuevo precio modificado, en el plazo de **quince días** contados desde la fecha en que se notifique al empresario el acuerdo de modificación.

Alde horretatik, ez dira prezio-aldaketatzat hartuko kontratuko prezioak berrikusi ondoren onartzen direnak.	A estos efectos no se considerarán las variaciones de precio que se produzcan como consecuencia de la aprobación de la revisión de precios del contrato.
Behin betiko bermea 2017ko SPKLko 110. artikuluan jasotako kontzeptuetarako izango da.	La garantía definitiva responderá de los conceptos a los que se refiere el artículo 110 de la LCSP 2017.
18. klausula – Esleipena eta jakinarazpena	**Cláusula 18.- Adjudicación y notificación**
2017ko SPKL Legearen 159.4.f) artikuluarekin bat etorriz, behin betiko bermea aurkeztu ostean, eta derrigorrezkoa den kasuetan, gastuaren konpromisoa Tokiko Ogasunak Arautzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitako moduan Kontu-hartzailetzak fiskalizatu ondoren, **beranduenez 5 eguneko** epean kontratua esleipendun modura proposatutako lizitatzailearen alde esleituko da, eta behin hura esleituta, formalizatu egingo da.	De acuerdo con el artículo 159.4.f) de la LCSP 2017 presentada la garantía definitiva y, en los casos en que resulte preceptiva, previa fiscalización del compromiso del gasto por la Intervención en los términos previstos en el Real Decreto Legislativo 2/2004, de 5 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley Reguladora de las Haciendas Locales en un plazo **no superior a 5 días**, se procederá a adjudicar el contrato a favor del licitador propuesto como adjudicatario, procediéndose, una vez adjudicado el mismo, a su formalización.
Esleipenaren ebazpen arrazoitua lizitatzaileei jakinaraziko zaie, eta kontratatzailearen profilean argitaratu beharko da **15 eguneko** epean.	La resolución motivada de adjudicación se notificará a los licitadores, debiendo ser publicada en el perfil de contratante en el plazo de **15 días**.
Jakinarazpenean eta publizitatean interesdunek esleipenaren erabakiaren aurka esleipen-prozeduran behar bezala argudiatutako errekurtsoa ipintzea ahalbidetzeko beharrezkoa den informazioa	La notificación y la publicidad deberán contener la información necesaria que permita a los interesados en el procedimiento de adjudicación interponer recurso suficientemente fundado contra la

barneratu beharko da, eta bertan, edozein kasutan, honakoa jaso beharko da. • -Esleipen-prozeduratik kanporatutako lizitatzaileei dagokienez, eskaintza ez onartzearen arrazoiak, baliokidetasun eza erabakitzearen edo zerbitzuak errendimenduko betekizunekin edo eskakizun funtzionalekin bat ez datozela erabakitzearen arrazoiak; eta lizitatzaile ezberdinei emandako balioespenen banakapena, esleipendunarena barne. • -Edozein kasutan, esleipendunaren izena, onartutako eskaintzen gainerako lizitatzaileek aurkeztu dituztenekiko lehenetsitako eskaintza baldintzatu duten esleipendunaren proposameneko ezaugarri eta abantailak. Jakinarazpena bitarteko elektronikoen bidez egingo da 2017ko SPKL Legearen hamabosgarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera.	decisión de adjudicación, y entre ella en todo caso deberá figurar la siguiente: • - Con respecto a los licitadores excluidos del procedimiento de adjudicación, los motivos por los que no se haya admitido su oferta, los motivos de la decisión de no equivalencia o de la decisión de que los servicios no se ajustan a los requisitos de rendimiento o a las exigencias funcionales; y un desglose de las valoraciones asignadas a los distintos licitadores, incluyendo al adjudicatario. • - En todo caso, el nombre del adjudicatario, las características y ventajas de la proposición del adjudicatario determinantes de que haya sido seleccionada la oferta de este con preferencia respecto de las que hayan presentado los restantes licitadores cuyas ofertas hayan sido admitidas. La notificación se realizará por medios electrónicos de conformidad con lo establecido en la disposición adicional decimoquinta de la LCSP 2017.
19. klausula. Prozeduran ordeztea Prozedura izapidetzerakoan eta kontratua formalizatu aurretik enpresak beste batekin bat egiten badu, zatitzen bada edo enpresa-ondarea edo jardueraren adar bat eskualdatzen badu, enpresa lizitatzaileak edo hautagaiak prozeduran duen tokia sozietate xurgatzaileak, bat egitetik sortzen denak, zatiketaren onuradunak edo enpresa-ondarea edo jarduera-adarra eskuratu duenak hartuko du. Hori, betiere, ahalmen-baldintzak betetzen baditu eta ez badu kontratatzeko debekurik, eta kaudimena eta sailkapena egiaztatzen baditu, administrazio-baldintza partikularren	**Cláusula 19.- Sucesión en el procedimiento** Si durante la tramitación del procedimiento y antes de la formalización del contrato se produce una operación de fusión, escisión, transmisión del patrimonio empresarial o de una rama de la actividad, le sucederá a la empresa licitadora o candidata en su posición en el procedimiento la sociedad absorbente, la resultante de la fusión, la beneficiaria de la escisión o la adquirente del patrimonio empresarial o de la correspondiente rama de actividad, siempre que reúna las condiciones de

agiri honetan esleipen-prozeduran parte hartu ahal izateko ezarritako baldintzen arabera.	capacidad y ausencia de prohibición de contratar y acredite su solvencia y clasificación en las condiciones exigidas en este pliego de cláusulas administrativas particulares para poder participar en el procedimiento de adjudicación.
20. klausula - Kontratua formalizatzea **Formalizatzea** Behin kontratua esleituta, bermea aurkezten denetik beranduenez 5 eguneko epean, eta derrigorrezkoa den kasuetan, gastua aldez aurretik fiskalizatu ondoren, kontratua formalizatu egingo da. Kontratua administrazio-dokumentu bidez formalizatu beharko da. Dokumentu hori lizitazioaren baldintzan araberakoa izan beharko da zehaztasun osoz eta nahikoa titulu izango da edozein erregistro publikora sartu ahal izateko. Haatik, kontratistak kontratua eskritura publikora eramatea eskatu ahalko du, beregain izango direlarik dagozkion gastuak. Kontratua formalizatzeko dokumentuan ezingo dira, inolaz ere, esleipenaren baldintzak aldatzea dakarten klausulak barneratu. Kontratua esleipena lizitatzaileei eta hautagaiei jakinarazi eta **beranduenez hamabost egun** baliodunean formalizatu beharko da.Kasu horretan, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraituz hurrengo lizitatzailearen alde esleituko da, aldez aurretik aurreikusitako betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa adierazitako epeen barruan aurkeztu ondoren.	**Cláusula 20.- Formalización del contrato** **Formalización** Una vez adjudicado el contrato en el plazo máximo de 5 días desde que se presente la garantía y, en los casos en que resulte preceptiva, se fiscalizase previamente el gasto, se formalizará el contrato. El contrato deberá formalizarse en documento administrativo que se ajustará con exactitud a las condiciones de la licitación, constituyendo dicho documento título suficiente para acceder a cualquier registro público. No obstante, el contratista podrá solicitar que el contrato se eleve a escritura pública, corriendo de su cargo los correspondientes gastos. En ningún caso se podrán incluir en el documento en que se formalice el contrato cláusulas que impliquen alteración de los términos de la adjudicación. La formalización del contrato deberá efectuarse **no más tarde de los quince días** hábiles siguientes a aquel en que se realice la notificación de la adjudicación a los licitadores y candidatos. En tal caso, el contrato se adjudicará al siguiente licitador por el orden en que hubieran quedado clasificadas las ofertas, previa presentación de la documentación acreditativa del cumplimiento de los requisitos previos, en los plazos antes señalados.

Ez formalizatzearen arrazoiak Administrazioari egotzi ahal bazaizkio, kontratistari kalte-ordaina ordainduko zaio atzerapenaren ondorioz sorrarazitako kalte eta galerengatik. Kontratua formalizatu aurretik ezingo da hura egikaritu.	Si las causas de la no formalización fueren imputables a la Administración, se indemnizará al contratista de los daños y perjuicios que la demora le pudiera ocasionar. No podrá procederse a la ejecución del contrato con carácter previo a su formalización.
Formalizazioaren iragarpena Kontratuaren formalizazioa, dagokion kontratuarekin batera, kontratazio organoaren Kontratatzailearen Profilean argitaratuko da, beranduenez kontratua perfekzionatu eta **hamabost eguneko** epean. Formalizazioaren iragarkian 2017ko SPKL Legearen III. Eranskinean jasotako informazioa barneratuko da. Kontratuarekin lotutako zenbait datu ez argitaratzea erabaki daiteke, baldin eta, espedientean behar bezala justifikatu ostean, informazio hori hedatzeak arau bat aplikatzea eragotz dezakeela, interes publikoaren aurkakoa izan daitekeela edo enpresa publiko edo pribatuen legezko interes komertzialak edo haien arteko konpetentzia leiala kalte dezakeela uste bada, edo sekretupeko edo isilpeko kontratutzat hartzen direnean edo hura gauzatu ahal izateko indarreko legeriaren arabera segurtasun-baldintza bereziak beharrezkoak direnean, edo Estatuko segurtasunaren funtsezko interesen babesak hala eskatzen duenean eta hala deklaratu izan denean 2017ko SPKL Legearen 19. artikuluaren 2. ataleko c) idatz-zatian aurreikusitakoarekin bat etorriz. Kasu horretan, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013	**Anuncio de formalización** La formalización del contrato junto con el correspondiente contrato se publicará en el Perfil del Contratante del órgano de contratación en un plazo no superior a **quince días** tras el perfeccionamiento del contrato. El anuncio de formalización contendrá la información recogida en el Anexo III de la LCSP 2017. Podrán no publicarse determinados datos relativos a la celebración del contrato cuando se considere, justificándose debidamente en el expediente, que la divulgación de esa información puede obstaculizar la aplicación de una norma, resultar contraria al interés público o perjudicar intereses comerciales legítimos de empresas públicas o privadas o la competencia leal entre ellas, o cuando se trate de contratos declarados secretos o reservados o cuya ejecución deba ir acompañada de medidas de seguridad especiales conforme a la legislación vigente, o cuando lo exija la protección de los intereses esenciales de la seguridad del Estado y así se haya declarado de conformidad con lo previsto en la letra c) del apartado 2 del artículo 19 de la LCSP 2017. En tal caso deberá recabarse la emisión de informe por el Consejo de Transparencia y

Legean aipatzen den Gardentasun eta Gobernu Onaren Batzordeak egindako txostenaren igorpena jaso beharko da, 2017ko SPKL Legearen 154. artikuluan adierazitako moduan.	Buen Gobierno a que se refiere la Ley 19/2013, de 9 de diciembre, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno en los términos del artículo 154 de la LCSP 2017.
KONTRATUA GAUZATZEA **21. klausula - Kontratuko prezioak ordaintzea** Prezioaren ordainketa, **Kontratuko Ezaugarrien Koadroko 18. atalean** adierazitako moduan egingo da. 2017ko SPKL Legearen hogeita hamabigarren Xedapen gehigarrian adierazitakoarekin bat etorriz, kontratistak faktura aurkeztu beharko du derrigorrez dagokion administrazio-erregistroaren aurrean, hura administrazio-organoari edo hura izapidetzea dagokion unitateari kontabilitate publiko arloko konpetentziak dituen administrazio-organoaren identifikazioa, kontratazio-organoaren eta hartzailearen identifikazioa (dagokion fakturan agertu beharko direnak) jasotzen dituen **Kontratuko Ezaugarrien Koadroko 18. atalean** adierazitako baldintzetan adierazitako moduan. Sektore Publikoan Faktura Elektronikoa bultzatu eta Fakturen Kontularitzako Erregistroa sortzeko Abenduaren 27ko 25/2013 Legean ezarritako kasuetan formatu elektronikoan aurkeztu beharko dira. Kasu horietan faktura Sarbide Puntu Orokorrean aurkezteak administrazio-erregistro batean aurkeztearen balio bera izango du. Ordainketaren atzerapena lau hilabetetik gorakoa izango balitz, kontratistak aukera izango du, hala badagokio, kontratuaren	**EJECUCIÓN DEL CONTRATO** **Cláusula 21.- Pago del precio del contrato** El pago del precio, se realizará de la manera señalada en el **apartado 18 del Cuadro de Características del Contrato**. De acuerdo con lo señalado en la Disposición adicional trigésima segunda de la LCSP 2017 el contratista tendrá la obligación de presentar la factura ante el correspondiente registro administrativo a efectos de su remisión al órgano administrativo o unidad a quien corresponda la tramitación de la misma en los términos señalados en el **apartado 18 del Cuadro de Características del Contrato** que recoge la identificación del órgano administrativo con competencias en materia de contabilidad pública, la identificación del órgano de contratación y del destinatario, que deberán constar en la factura correspondiente. En los supuestos fijados en la Ley 25/2013, de 27 de diciembre, de Impulso a la Factura Electrónica y Creación del Registro Contable de Facturas del Sector Público deberá presentarse en formato electrónico. En tales supuestos la presentación de la factura en el Punto General de Acceso equivale a la presentación en un registro administrativo. Si la demora en el pago fuese superior a cuatro meses, el contratista podrá proceder, en su caso, a la suspensión del cumplimiento del contrato, debiendo

betetzea bertan behera uzteko. Hori Administrazioari jakinarazi beharko dio hilabete lehenago, bertan behera uzte horretatik erator daitezkeen eskubideak aitortze aldera, Legean ezarritako moduan. Administrazioa sei hilabetetik gora atzeratuko balitz, kontratistak, era berean, kontratua eteteko eta horren ondorioz sortzen diren kalteen ordaina jasotzeko eskubidea izango du.	comunicar a la Administración, con un mes de antelación, tal circunstancia, a efectos del reconocimiento de los derechos que puedan derivarse de dicha suspensión, en los términos establecidos en esta Ley. Si la demora de la Administración fuese superior a seis meses, el contratista tendrá derecho, asimismo, a resolver el contrato y al resarcimiento de los perjuicios que como consecuencia de ello se le originen.
22. klausula. Prezioak berrikustea Kontratu honetan ez da prezioak berrikustea aurreikusten.	**Cláusula 22.- Revisión de precios** En el presente contrato, no se prevé revisión de precios.
23. klausula. Betekizunak: zerga-sistema, generoarekiko berdintasuna, ingurumena babestea, enplegua, lan-baldintzak eta desgaitasunak dituen pertsona-portzentaje jakin bat kontratatzea Kontratistak lanaren, gizarte-segurantzaren, desgaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzearen eta laneko arriskuen prebentzioaren gainean indarrean dagoen araudia bete behar du nahitaez; hori, laneko arriskuak prebenitzeko azaroaren 8ko 31/1995 Legean eta hura arautzeko eta garatzeko arauetan ezarritakoaren arabera. Agiri honetako 2. eranskinean jasotako proposamen ekonomikoaren ereduan berariaz adierazi behar da eskaintzan kontuan hartu direla, batetik, zerga-sistemaren, ingurumenaren babesaren, enpleguaren babesaren, genero-berdintasunaren, lan-baldintzen, laneko arriskuen prebentzioaren eta desgaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen gainean indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betekizunak; eta	**Cláusula 23.- Obligaciones relativas a la fiscalidad, protección del medio ambiente, empleo y condiciones laborales y de contratar a un porcentaje específico de personas con discapacidad** El contratista está obligado al cumplimiento de la normativa vigente en materia laboral, de seguridad social, de integración social de minusválidos y de prevención de riesgos laborales, conforme a lo dispuesto en la Ley 31/1995, de 8 de noviembre, sobre Prevención de Riesgos Laborales, y sus normas reglamentarias y de desarrollo. En el modelo de proposición económica que figura como **Anexo 2** al presente pliego se hará manifestación expresa que se han tenido en cuenta en sus ofertas las obligaciones derivadas de las disposiciones vigentes en materia de fiscalidad, protección del medio ambiente, protección del empleo, igualdad de género, condiciones de trabajo, prevención de riesgos laborales e inserción socio laboral

bestetik, desgaitasunak dituen pertsona-kopuru edo -portzentaje jakin bat kontratatzeko betebeharra. Horrek ez du esan nahi 2017ko SPKLko 149. artikuluan ezarritakoa aplikatu behar ez denik; artikulu hori normalak ez diren edo neurrigabeak diren balioak dituzten eskaintzak egiaztatzeari buruzkoa da.	de las personas con discapacidad, y a la obligación de contratar a un número o porcentaje especifico de personas con discapacidad, y protección del medio ambiente, sin perjuicio de la aplicación de lo dispuesto en el artículo 149 de la LCSP 2017sobre verificación de las ofertas que incluyan valores anormales o desproporcionados.
24. klausula – Egikaritzearen baldintza bereziak Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak finkatzen dira, hala badagokio **Kontratuaren Ezaugarrien Koadroko 16. atalean** agertzen direnak. Horiek betetzen ez badira zehapenak ezarriko dira, atal horretan berariaz zehazten direnak izan ezik, zeintzuei oinarrizko kontratuzko betebehar izaera ematen baitzaie kontratua eteteko kausa modura hartzearen ondorioetarako, betebehar nagusitzat hartzeagatik 2017ko SPKL Legearen 71. artikuluaren f) idatz-zatian, eta arau-hauste larri gisa tipifikatzen direnak 2017ko SPKL Legearen 71. artikuluaren 2. ataleko c) idatz-zatian ezarritako ondorioetarako.	**Cláusula 24.- Condiciones especiales de ejecución** Se establecen las condiciones especiales de ejecución del contrato, que en su caso figuran en el **apartado 16 del Cuadro de Características del Contrato**, el incumplimiento de las cuales dará lugar a la imposición de penalidades, salvo las que se determinen expresamente en tal apartado a las que se les confiere el carácter de obligaciones contractuales esenciales a los efectos de su consideración como causa de resolución del contrato por tener carácter de obligación principal letra f) del artículo 211 de la LCSP 2017 y las que se tipifiquen como infracción grave a los efectos establecidos en la letra c) del apartado 2 del artículo 71 de la LCSP 2017.
25. klausula. Kontratistarentzako zigorrak, kontratua ez betetzeagatik Kontratatutako enpresak ez badu betetzen, hari egozteko moduko arrazoiengatik, agiri honetako 23. eta 24. artikuluan jasotako baldintzak nahiz prestazioen egikaritze partziala, administrazioak erabaki dezake kontratua iraungitzea (hori erabakiz gero kontratistak bermea galduko du) edo zigorra jartzea, gehienez kontratuaren prezioaren % 10ekoa, aipatutako hiru kasu bakoitzeko.	**Cláusula 25.- Penalidades a la empresa contratista por incumplimiento** Cuando la empresa contratada, por causas imputables a la misma, hubiere incumplido las condiciones señaladas en las cláusulas 23 y 24 de este pliego, la Administración podrá optar, indistintamente, por su resolución, con pérdida de la garantía, o por la imposición de una penalidad, en cada uno de los tres supuestos señalados, no superior al 10% del precio del contrato.

26. klausula - Kontratua lagatzea	**Cláusula 26.- Cesión del contrato**
Kontratutik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahalko dizkio kontratistak **Kontratuko Ezaugarrien Koadroko 23. atalean** hala adierazten denean, betiere, lagatzailearen tasun tekniko edo pertsonalak kontratua esleitzeari dagokionez erabakigarriak izan ez badira, eta lagatzearen ondorioz merkatuan lehia egiaz murriztea gertatzen ez bada. Ezingo da hirugarren bati lagatzea baimendu, horrek kontratistaren ezaugarriak modu adierazgarriak aldatzea suposatzen badu, horiek kontratuaren oinarrizko elementu izanik.	Los derechos y obligaciones dimanantes del contrato podrán ser cedidos por el contratista a un tercero cuando así lo señale el **apartado 23 del Cuadro de Características del Contrato,** siempre que las cualidades técnicas o personales del cedente no hayan sido razón determinante de la adjudicación del contrato, y de la cesión no resulte una restricción efectiva de la competencia en el mercado. No podrá autorizarse la cesión a un tercero cuando esta suponga una alteración sustancial de las características del contratista si estas constituyen un elemento esencial del contrato.
Kontratazio organoak aurretiaz eta berariaz baimendu beharko du lagatzea. Baimen hori onartu egingo da, betiere, ondoren adierazten diren betekizunak betetzen badira. Baimena eskatzeari buruzko ebazpena jakinarazteko epea bi hilabetekoa izango da, eta epe hori igarota baimena onartutzat emango da administrazio-isiltasunagatik.	El órgano de contratación ha de autorizar, de forma previa y expresa, la cesión. Dicha autorización se otorgará siempre que se den los requisitos que se señalan después. El plazo para la notificación de la resolución sobre la solicitud de autorización será de dos meses, trascurrido el cual deberá entenderse otorgada por silencio administrativo.
• **-**Lagatzaileak kontratuaren zenbatekoaren % 20 gauzatuta izatea gutxienez. Betekizun hori ez da aplikatzekoa izango lagatzea egiten denean kontratista konkurtso egoeran badago nahiz eta likidazio-fasea irekita egon, edo eskumeneko epaitegiari jakinarazi badio konkurtsoa deklaratzeko berriro finantzatzeko akordio batera iristeko, edo hitzarmeneko aurretiko proposamen baterako atxikipenak eskuratzeko negoziazioak hasita dituelarik, konkurtsozko legerian aurreikusitako baldintzetan.	• **-** Que el cedente tenga ejecutado al menos un 20 por 100 del importe del contrato. No será de aplicación este requisito si la cesión se produce encontrándose el contratista en concurso aunque se haya abierto la fase de liquidación, o ha puesto en conocimiento del juzgado competente para la declaración del concurso que ha iniciado negociaciones para alcanzar un acuerdo de refinanciación, o para obtener adhesiones a una propuesta anticipada de convenio, en los términos previstos en la legislación concursal. • **-** Que el cesionario tenga capacidad para contratar con la Entidad Local y la solvencia que resulte exigible en

• -Lagapen-hartzaileak Tokiko Erakundearekin kontratatzeko ahalmena izatea eta kontratuko egikaritze-fasearen arabera eska daitekeen kaudimena izatea, behar bezala sailkatuta egon beharko delarik betekizun hori lagatzaileari eskatzen bazaio, eta kontratatzeko debekurik ez izatea. • -Lagatzea esleipendunaren eta lagapen-hartzailearen artean eskritura publikoan formalizatzea. Lagapen-hartzailea subrogatuta geratuko da lagatzaileari legozkiokeen eskubide eta betebehar guztien gainean.	función de la fase de ejecución del contrato, debiendo estar debidamente clasificado si tal requisito ha sido exigido al cedente, y no estar incurso en una causa de prohibición de contratar. • - Que la cesión se formalice, entre el adjudicatario y el cesionario, en escritura pública. El cesionario quedará subrogado en todos los derechos y obligaciones que corresponderían al cedente.
27. klausula. Kontratistari eskatzeko moduko betekizun, gastu eta zergak Kontratistaren kontura izango dira kontratua formalizatzeko gastuak, baldin eta eskritura publikoa izatea erabakitzen badu. Halaber, enpresak kontratua betetzeko egin beharreko gastuak ordainduko ditu: gastu orokor eta finantzarioak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, materiala, instalazioak, haren ardurapean dauden langileen ordainsariak, egiaztapenak eta entseguak, tasak eta zergak, BEZ, jarduerari dagokion zerga eta kontratuak irauten duen bitartean hura gauzatzeko gainerako gastuak. Gastu horiek guztiak, beraz, ezin dira partida bereizi gisa egotzi.	**Cláusula 27.- Obligaciones, gastos e impuestos exigibles al contratista** Son de cuenta del contratista los gastos de formalización del contrato en el supuesto de elevación a escritura pública. Asimismo vendrá obligado a satisfacer todos los gastos que la empresa deba realizar para el cumplimiento del contrato, como son los generales, financieros, de seguros, transportes y desplazamientos, materiales, instalaciones, honorarios del personal a su cargo, de comprobación y ensayo, tasas y toda clase de tributos, el IVA, el impuesto que por la realización de la actividad pudiera corresponder y cualesquiera otros que pudieran derivarse de la ejecución del contrato durante la vigencia del mismo, sin que por tanto puedan ser éstos repercutidos como partida independiente.
28. klausula. Kontratua gauzatzea Kontratua klausuletan eta pleguetan ezarritakoarekin bat etorriz gauzatuko da, eta kontratuaren arduradunak kontratistari hura interpretatzeko emandako jarraibideen arabera, hura izendatu den kasuetan.	**Cláusula 28.- Ejecución del contrato** El contrato se ejecutará con sujeción a lo establecido en su clausulado y en los pliegos, y de acuerdo con las instrucciones que para su interpretación diere al

Bestela, funtzio hori kontratazio organoaren baitako zerbitzuaren ardurapekoa izango da 2017ko SPKL Legearen 311. artikulua).	contratista el responsable del contrato, en los casos en que se hubiere designado. En otro caso, esta función le corresponderá a los servicios dependientes del órgano de contratación (artículo 311 de la LCSP 2017).
29. klausula. Arrisku printzipioa Kontratua gauzatzeko garaian, arriskuak bere kontura hartuko ditu kontratistak.	**Cláusula 29.- Principio de riesgo y ventura** La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista.
30. klausula - Kontratistaren erantzukizuna kalte eta galeren aurrean Kontratistaren betebeharra izango da kontratua gauzatzeko egiten diren eragiketen ondorioz hirugarrenei eragindako kalte eta galera guztiak indemnizatzea. Kalte eta galera horiek Tokiko Erakunde baten aginduz sorrarazi direnean berehala eta zuzen, hura izango da erantzulea Legeetan adierazitako mugen barruan. Hirugarrenek aukera izango dute aldez aurretik, jazoera gertatu eta hurrengo urtearen barruan, kontratazio organoa deitzeko, hark, kontratistari entzun ostean, kalteen erantzukizuna zein alde kontratatzaileri dagokion jakinaraz dezan. Eskumen horrek ekintzaren preskripzio-epea eteten du. Haien erreklamazioa, edozein kasutan, kasu bakoitzean aplikagarri den legerian ezarritako prozedurarekin bat etorriz egingo da.	**Cláusula 30.- Responsabilidad del contratista por daños y perjuicios** Será obligación del contratista indemnizar todos los daños y perjuicios que se causen a terceros como consecuencia de las operaciones que requiera la ejecución del contrato. Cuando tales daños y perjuicios hayan sido ocasionados como consecuencia inmediata y directa de una orden de la Entidad Local, será esta responsable dentro de los límites señalados en las Leyes. Los terceros podrán requerir previamente, dentro del año siguiente a la producción del hecho, al órgano de contratación para que éste, oído el contratista, informe sobre a cuál de las partes contratantes corresponde la responsabilidad de los daños. El ejercicio de esta facultad interrumpe el plazo de prescripción de la acción. La reclamación de aquellos se formulará, en todo caso, conforme al procedimiento establecido en la legislación aplicable a cada supuesto.

Ezinbesteko kasuetan eta kontratistaren aldetik zuhurtziagabekeriazko jardunik egon ez bada, hark eskubidea izango du kontratua gauzatzean gertatu izan ahal diren kalte eta galeren ondorioz kalte-ordaina jasotzeko.	En casos de fuerza mayor y siempre que no exista actuación imprudente por parte del contratista, este tendrá derecho a una indemnización por los daños y perjuicios, que se le hubieren producido en la ejecución del contrato.
2017ko SPKL Legearen 311. artikuluan aurreikusitakoaren arabera, kontratista izango da lanen kalitate teknikoaren eta egindako horniduren erantzulea. Gainera, kontratua gauzatzen den bitartean akats edo ez betetzeen, metodo desegokien edo ondorio okerren ondorioz Administrazioak edo hirugarrenek jasan ditzaketen eraginen erantzule ere izango da.	El contratista de acuerdo con el 311 de la LCSP 2017 será responsable de la calidad técnica de los trabajos que desarrolle y de las suministros realizados, así como de las consecuencias que se deduzcan para la Administración o para terceros de las omisiones, errores, métodos inadecuados o conclusiones incorrectas en la ejecución del contrato.
31. klausula – Kontratuaren zuzendu eta gainbegiratzea	**Cláusula 31.- Dirección y supervisión del contrato**
Kontratuko Ezaugarrien Koadroko 1. atalean kontratuaren jarraipena egin eta egikaritze arrunta gauzatzeko ardura duen unitatea edozein izanik ere, Kontratuko Arduradunari dagokio atal horretan kontratuaren egikaritzea gainbegiratzeko premia barneratzea eta adostutako prestazioa behar bezala egin dadila ziurtatzeko beharrezkoak diren erabakiak hartu eta beharrezkoak diren argibideak ematea, esleitzen zaizkion eskuduntzen barruan.	Con independencia de la unidad encargada del seguimiento y ejecución ordinaria del contrato que señala el **apartado 1 del Cuadro de Características del Contrato** corresponde al Responsable del Contrato que en dicho apartado se precisa supervisar su ejecución y adoptar las decisiones y dictar las instrucciones necesarias con el fin de asegurar la correcta realización de la prestación pactada, dentro del ámbito de facultades que aquellos le atribuyan.
32. klausula. Kontratua aldatzea Araubideari dagokionez, bete behar dira, batetik, 2017ko SPKLko 190., 191. eta 203-207 artikuluak eta hirugarren xedapen gehigarria; eta bestetik, HAKLEOko 97. eta 102. artikuluak.	**Cláusula 32.- Modificaciones del contrato.** En lo concerniente a su régimen se estará a lo dispuesto en los artículos 190,191, 203 a 207 de la LCSP 2017 y la disposición adicional tercera de la LCSP 2017; y en los artículos 97 y 102 del RGLCAP.

KONTRATUA ETETEA	EXTINCIÓN DEL CONTRATO
33. klausula – Kontratua betetzea, entrega-gastuak eta kontratua hartzea Kontratistak kontratua bete duela ulertuko da, kontratuko baldintzak betez eta Tokiko Erakundea ados egonik, prestazio osoa gauzatu duenean Kontratuko	**Cláusula 33.- Cumplimiento del contrato, gastos de entrega y recepción del contrato** El contrato se entenderá cumplido por el contratista cuando este haya realizado, de acuerdo con los términos del mismo y a satisfacción de la Entidad Local,
34. klausula - Berme-epea, hutsegiteak eta akatsak Berme-epea **Kontratuko Ezaugarrien Koadroaren 21. atalean** ezartzen da, kontratuaren izaera eta konplexutasunari so, eta ezingo da urtebetetik beherakoa izan kasu bereziak salbuetsita, hala badagokio, esleipendunak hura hobetzeko aukera izanik.	**Cláusula 34.- Plazo de garantía vicios y defectos** El plazo de garantía se establece en el **apartado 21 del Cuadro de Características del Contrato** atendiendo a la naturaleza y complejidad del contrato y no podrá ser inferior a un año salvo casos especiales, siendo en su caso susceptible de ser mejorado por el adjudicatario.
35. klausula – Bermea itzultzea eta kontratua likidatzea Bermea ez da itzuli edota suntsituko berme-epea amaitu eta kontratua modu egokian gauzatu arte, edo kontratistaren errurik gabe kontratuaren etetea deklaratzen den arte. Kontratuaren likidazioa onartuta eta berme-epea igarota, erantzukizunik ez balego, eratutako bermea itzuli egingo da edo abal edo kauzio-asegurua ezeztatu egingo da.	**Cláusula 35.- Devolución de la garantía y liquidación del contrato** La garantía no será devuelta o cancelada hasta que se haya producido el vencimiento del plazo de garantía y cumplido satisfactoriamente el contrato, o hasta que se declare la resolución de este sin culpa del contratista. Aprobada la liquidación del contrato y transcurrido el plazo de garantía, si no resultaren responsabilidades se devolverá la garantía constituida o se cancelará el aval o seguro de caución. El acuerdo de devolución deberá adoptarse y notificarse al interesado en el

Itzulketa egiteko akordioa berme-epea amaitu eta bi hilabeteko epean hartu eta jakinarazi beharko zaio interesdunari. Epe hori igarota, Administrazioak zenbateko egokia ordaindu beharko dio kontratistari, epe hori amaitu denetik bermea itzultzeko egunera arte igarotako epeari dagokion diruaren legezko interesarekin areagotuta, baldin eta hura gauzatu ez balitz Tokiko Erakundeari egotzi ahal zaion arrazoia dela medio. Harrera partziala bada, kontratistak bermearen zati proportzionala itzuli edo ezeztatzea eskatuko ahalko du soilik administrazio klausula berezien pleguan berariaz onartzen denean. Kontratuak lagatzen direnean, lagatzaileak emandako bermea ez da itzuli edo ezeztatuko lagapen-hartzailearen bermea formalki eratuta egon arte. Kontratua amaitzen denetik urtebete igaro eta, berme-epea igarota, ez bada harrera formalki egin ezta likidaziorik ere egin, eta horren arrazoiak ezin bazaizkio kontratistari egotzi, orduan, bermeak itzuli edo ezeztatu egingo dira gehiago atzeratu gabe, baina horretarako beharrezkoa izango da 2017ko SPKL Legearen 110. artikuluan aipatzen diren erantzukizun-kasuak ez gertatzea.	plazo de dos meses desde la finalización del plazo de garantía. Transcurrido el mismo, la Administración deberá abonar al contratista la cantidad adeudada incrementada con el interés legal del dinero correspondiente al período transcurrido desde el vencimiento del citado plazo hasta la fecha de la devolución de la garantía, si ésta no se hubiera hecho efectiva por causa imputable a la Entidad Local. En el supuesto de recepción parcial sólo podrá el contratista solicitar la devolución o cancelación de la parte proporcional de la garantía cuando así se autorice expresamente en el pliego de cláusulas administrativas particulares. En los casos de cesión de contratos no se procederá a la devolución o cancelación de la garantía prestada por el cedente hasta que se halle formalmente constituida la del cesionario. Transcurrido un año desde la fecha de terminación del contrato, y vencido el plazo de garantía, sin que la recepción formal y la liquidación hubiesen tenido lugar por causas no imputables al contratista, se procederá, sin más demora, a la devolución o cancelación de las garantías una vez depuradas las responsabilidades a que se refiere el artículo 110 de la LCSP 2017.
36. klausula. Kontratua amaitzeko arrazoiak Hornidura-kontratua eteteko arrazoiak dira, Legean aipatzen diren orokorrak ez ezik, honakoak: a) Tokiko Erakundeari egotzi ahal zaion arrazoiagatik hornidura hasi aurretik	**Cláusula 36.- Causas de resolución del contrato** Son causas de resolución del contrato de suministro, además de las generales de la Ley, las siguientes: a) El desistimiento antes de la iniciación del suministro o la suspensión de la iniciación

kontratuan atzera egitea edo horniduraren hasiera bertan behera uztea kontratuan entrega egiteko adierazitako egunetik zenbatzen hasi eta lau hilabetetik gorako epean, baldin eta Kontratuaren Ezaugarrien Koadroko 32. atalean laburragoa den beste eperen bat adierazten ez bada. b) Behin hornidura gauzatzen hasita atzera egitea edo Administrazioaren erabakiz hornidura zortzi hilabete baino gehiagoz bertan behera utzita edo etenda egotea, baldin eta pleguan beste epe laburragoren bat aipatzen ez bada. Halaber, kontratua eteteko arrazoi izango dira, Pleguetan eta aipatu 34. atalean jasotako funtsezko modura kalifikatutako gainerako betebeharrak ez betetzea, hurrengo bi betekizunak ematen direnean: 1. Horiek itunak askatasunez egiteko 34. artikuluko 1. atalean ezartzen diren mugak errespetatzea. 2. Kontratuko Ezaugarrien Koadroko 32. atalean edo deskribapenerako dokumentuan modu zehatz, argi eta nahastezinean zerrendatuta etortzea, klausula orokorrak onargarriak izango ez direlarik. Kontratua eteteko hainbat arrazoi ematen diren kasuetan, amaierak izan ditzakeen ondorio ekonomikoei dagokienez efektu ezberdinak izanik, denboran lehentasuna izan duenari erreparatu beharko zaio. Kontratua eteteak berekin ekarriko du ondareak eta egindako ordainketen zenbatekoak elkarri itzultzea eta, hori Tokiko Erakundearentzat ezinezkoa edo komenigarria ez denean, egiaz entregatu eta adostasunarekin jasotako ondareen prezioa ordaindu beharko du. Tokiko Erakunde edo Administrazioari egotzi ahal zaion arrazoia dela medio hornidura hasi aurretik atzera egin bada edo horniduraren hasiera eten bada lau hilabetetik gorako epeaz, kontratistak eskubidea izango du soilik, kontzeptu	del suministro por causa imputable a la Entidad Local plazo superior a cuatro meses a partir de la fecha señalada en el contrato para la entrega salvo que en el apartado 32 del Cuadro de Características del Contrato se señale otro menor. b) El desistimiento una vez iniciada la ejecución del suministro o la suspensión del suministro por un plazo superior a ocho meses acordada por la Administración, salvo que en el pliego se señale otro menor. Serán, asimismo causas de resolución del contrato, el incumplimiento de las restantes obligaciones esenciales calificadas como tales en los Pliegos, y recogidas en el citado apartado 34 cuando concurran los dos requisitos siguientes: 1. Que las mismas respeten los límites que el apartado 1 del artículo 34 establece para la libertad de pactos. 2. Que figuren enumeradas de manera precisa, clara e inequívoca en el apartado 32 del Cuadro de Características del Contrato o en el documento descriptivo, no siendo admisibles cláusulas de tipo general. En los casos en que concurran diversas causas de resolución del contrato con diferentes efectos en cuanto a las consecuencias económicas de la extinción, deberá atenderse a la que haya aparecido con prioridad en el tiempo. La resolución del contrato dará lugar a la recíproca devolución de los bienes y del importe de los pagos realizados, y, cuando no fuera posible o conveniente para la Entidad Local, habrá de abonar está el precio de los efectivamente entregados y recibidos de conformidad. Cuando se produzca desistimiento antes de la iniciación del suministro o la suspensión de la iniciación del suministro por causa imputable a la Entidad Local Administración por plazo superior a cuatro meses, solo tendrá derecho el contratista a

guztiengatik, kontratuaren esleipenaren prezioaren ehuneko 3ko kalte-ordaina jasotzeko, BEZ kanpo. Hornidura gauzatzen hasi ondotik atzera egin bada edo hornidura eten bada zortzi hilabetetik gorako epeaz, kontratistak eskubidea izango du, kontzeptu guztiengatik, industria mozkin kontzeptuan gauzatzeari utzitako horniduren kontratua esleitzeko prezioaren ehuneko 6a jasotzeko, BEZ kanpo. Gauzatzeari utzitako hornidura modura ulertuko dira hasierako kontratuan islatutakoaren eta haren gainean onartutako aldaketen artean dagoen ezberdintasunaren ondoriozkoak, eta atzera egitea edo etetea jakinarazten den egunera arte gauzatu liratekeenak. Etetearen arrazoiak eta horren ondorioak aplikatzeko, aurrez adierazitakoak emango ez baldira, 2017ko SPKL Legearen 212., 213. eta 214. artikuluetan xedatutakoa beteko da.	percibir, por todos los conceptos, una indemnización del 3 por ciento del precio de la adjudicación del contrato, IVA excluido. Cuando se produzca el desistimiento una vez iniciada la ejecución del suministro o la suspensión del suministro por un plazo superior a ocho meses el contratista tendrá derecho a percibir, por todos los conceptos, el 6 por ciento del precio de adjudicación del contrato de los suministros dejados de realizar en concepto de beneficio industrial, IVA excluido, entendiéndose por suministros dejados de realizar los que resulten de la diferencia entre los reflejados en el contrato primitivo y sus modificaciones aprobadas, y los que hasta la fecha de notificación del desistimiento o de la suspensión se hubieran realizado. Para la aplicación de las causas de resolución y los efectos de la misma en defecto de lo antes señalado se estará a lo dispuesto en los artículos 212 y 213 y 214 de la LCSP 2017.
37. klausula. Administrazioaren eskumenak eta auzitegi eskudunak SPKLn ezarritako muga, betekizun eta eraginak aintzat hartuta, kontratazio-organoak eskumen hauek ditu: kontratu administratiboak interpretatzea, kontratua betetzerakoan sortzen diren zalantzak argitzea, kontratua interes publikoko arrazoiengatik aldatzea, kontratua gauzatzerakoan kontratistari erantzukizunen bat egoztea, kontratua etetea, kontratua iraungitzea erabakitzea eta iraungipenaren eraginak zehaztea. Adierazitako eskumenen arabera akordioak adosteko prozeduretan, kontratista jakinaren gainean jarri beharra dago. Hala eta guztiz ere, kasu hauetan ezinbestekoa da Estatu Kontseiluaren edo	**Cláusula 37.- Prerrogativas de la Administración y Tribunales competentes.** Dentro de los límites y con sujeción a los requisitos y efectos señalados en la LCSP, el órgano de contratación ostenta la prerrogativa de interpretar los contratos administrativos, resolver las dudas que ofrezca su cumplimiento, modificarlos por razones de interés público, declarar la responsabilidad imputable al contratista a raíz de la ejecución del contrato, suspender la ejecución del mismo, acordar su resolución y determinar los efectos de esta. En los procedimientos que se instruyan para la adopción de acuerdos relativos a las prerrogativas señaladas, deberá darse audiencia al contratista.

autonomia-erkidegoan haren baliokide den aholkularitza-organoaren erabakia: • a) Kontratua interpretatzea, baliogabetzea eta amaitzea, kontratistak aurka egiten badu. • b) Kontratua aldatzea, aldaketa horiek administrazio-baldintza partikularren agirian aurreikusita ez daudenean eta, betiere, zenbatekoa, bereiz edo batera, kontratuaren hasierako prezioaren ehuneko hogei baino handiagoa bada (BEZ gabe). • c) Administrazioari egindako erreklamazioak, administrazioak kontratuzko erantzukizunen bat badu, baldin eta eskatutako kalte-ordainak 50.000 euro edo gehiagokoak badira. Kontratazio-organoak adostutako akordioek administrazio-bidea amaituko dute eta betearazleak izango dira berehala. Kontratuaren interpretazio, aldaketa eta iraungipenaren inguruan eta iraungipenaren eraginen gainean sortzen diren eztabaidak kontratazio-organoak ebatziko ditu. Kontratazio-organoak adostutako akordioak administrazio-bidea amaituko dute eta betearazleak izango dira berehala. Akordioaren kontra berraztertzeko errekurtsoa jar daiteke, adostu duen organoaren aurrean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa medio inpugnatu daiteke, jurisdikzio hori arautzen duen legean ezarritakoari jarraikiz.	No obstante lo anterior, será preceptivo el dictamen del Consejo de Estado u órgano consultivo equivalente de la Comunidad Autónoma respectiva en los casos de: • a) Interpretación, nulidad y resolución, cuando se formule oposición por parte del contratista. • b) Modificaciones del contrato, cuando no estuvieran previstas en el pliego de cláusulas administrativas particulares y su cuantía, aislada o conjuntamente, sea superior a un 20 por ciento del precio inicial del contrato, IVA excluido. • c) Reclamaciones dirigidas a la Administración con fundamento en la responsabilidad contractual en que esta pudiera haber incurrido, en los casos en que las indemnizaciones reclamadas sean de cuantía igual o superior a 50.000 euros. Los acuerdos que adopte el órgano de contratación pondrán fin a la vía administrativa y serán inmediatamente ejecutivos. Las cuestiones litigiosas surgidas sobre la interpretación, modificación y resolución del contrato, y efectos de ésta, serán resueltas por el órgano de contratación, cuyos acuerdos pondrán fin a la vía administrativa, y serán inmediatamente ejecutivos, pudiendo ser recurridos potestativamente en reposición ante el mismo órgano que los dictó, o ser impugnado mediante recurso contencioso-administrativo, conforme a lo dispuesto en la Ley reguladora de dicha Jurisdicción.
38. klausula. Lizitazioa zuzentzen duen dokumentazioaren kontrako errekurtsoen araubidea Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean ezarritakoaren arabera. Dena den, interesdunak berraztertzeko errekurtsoa jar dezake Alkatearen aurrean	**Cláusula 38.- Régimen de recursos contra la documentación que rige la licitación** Se podrá interponer recurso contencioso-administrativo, de acuerdo con lo dispuesto en la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-administrativa. No obstante, el interesado podrá optar por interponer recurso de

1. ERANSKINA: DEUC	ANEXO 1: DEUC
2. ERANSKINA: PROPOSAMEN EKONOMIKOA	ANEXO 2: PROPOSICIÓN ECONÓMICA
3. ERANSKINA: BALIABIDE PERTSONALAK ETA MATERIALAK ADSKRIBATZEKO KONPROMISOA	ANEXO 3: COMPROMISO DE ADSCRIPCION DE MEDIOS PERSONALES Y MATERIALES
eta, hori eginez gero, ez dago administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri beharrik, berraztertzeko errekurtsoaren berariazko edo usteko ebazpena egin bitartean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta hurrengoetan zehaztutakoari jarraikiz. Horrek guztiak ez du esan nahi interesdunak egoki iritzitako beste edozein errekurtso jartzea erabaki ezin duenik.	reposición ante el Alcalde en cuyo caso no cabrá interponer el recurso contencioso-administrativo anteriormente citado, en tanto no recaiga resolución expresa o presunta del recurso de reposición, de conformidad con lo establecido en los arts. 123 y siguientes de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, sin perjuicio de que el interesado pueda ejercitar cualquier otro recurso que estime procedente.
Plegu hau onartua izan da, 2021-06-29ko Alkatearen Ebazpenaren bidez.	El presente pliego ha sido aprobado por Resolución de la Alcaldesa el 29-06-2021

2. ERANSKINA. Proposamen ekonomikoaren eredua.	**ANEXO 2. Modelo de proposición económica**
.... jaunak/andreak (Helbidea:…… …..... NAN:…….....Telefonoa: ..... Helbide elektronikoa……. ……erabateko ahalmen juridiko eta jarduteko ahalmenarekin, bere izenean edo .....(r)en ordezkari gisa (IFK: ..... Helbidea:.....	D./Dña.....con domicilio en…..……... ..... CP....., DNI nº....., Teléfono..... Dirección de correo electrónico ……...en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de…….. ..... CIF.....con domicilio en…….....
Euskadiko Kontratazioaren Plataforman PROZEDURA IREKI SINPLIFIKATU BIDEZ ESLEITZEKO BEASAINGO MARIARATS KALEKO MENDI-HEGALA EGONKORTZEKO OBRAK deitutako lizitazioaren berri jaso ondoren, honako hau aitortzen dut:	Tras conocer la licitación convocada en la Plataforma de Contratación de Euskadi la licitación para la CONTRATACIÓN DE LAS OBRAS DE ESTABILIZACIÓN DE LA LADERA DE LA CALLE MARIARATS A ADJUDICAR POR PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO, declaro:
1) Ondorengo konpromisoa hartzen dudala, aipatutako obrak prezio honen truke egitea:	1º) Que me comprometo a ejecutar las citadas obras al precio de:
: - ……..….EURO (hizkiz eta zenbakiz) gehi BEZi dagozkion ……..... EURO (hizkiz eta zenbakiz).	- ……EUROS (en letra y nº) más la cantidad de……(en letra y nº), correspondiente al IVA.
- ..... urteko berme-epe bat eskaintzen dut, baldintza-agirian ezarritakoari (urtebete) gehitu behar zaio, eta, guztira, … urte izango dira.	- Que ofrezco un plazo de garantía de…..años, a añadir al establecido en el pliego (un año), suponiendo un total de … años.
. 2) Irakurri ditut baldintza teknikoen agiria, administrazio-baldintza partikularren agiria eta kontratua arautzen duten gainerako dokumentuak, eta ontzat hartzen ditut, oso-osorik.	2º) Que conozco el Pliego de Prescripciones Técnicas, el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares y demás documentación que ha de regir el presente contrato, que expresamente asumo y acato en su totalidad.

3) Ordezkatzen dudan enpresak irekiera, instalazio eta funtzionamenduaren gainean indarrean dagoen araudiko betekizun eta eginbehar guztiak betetzen ditu. 4) Eskaintzan kontuan hartu ditugu, batetik, zerga-sistemaren, generoarekiko berdintasuna, ingurumenaren babesaren, enpleguaren babesaren, genero-berdintasunaren, lan-baldintzen, laneko arriskuen prebentzioaren eta desgaitasunak dituzten pertsonen gizarteratzearen eta laneratzearen gainean indarrean dauden xedapenetatik eratorritako betekizunak; eta bestetik, desgaitasunak dituen pertsona-kopuru edo -portzentaje jakin bat kontratatzeko betebeharra. Hala, hori guztia beteko dudala hitzematen dut. .....n,20....(e)ko.....ren.....(e)an Sinadura	3º) Que la empresa a la que represento, cumple con todos los requisitos y obligaciones exigidos por la normativa vigente para su apertura, instalación y funcionamiento. 4º) Manifiesto que en la oferta, se han tenido en cuenta las obligaciones derivadas de las disposiciones vigentes en materia de fiscalidad, igualdad de género, protección del medio ambiente, protección del empleo, igualdad de género, condiciones de trabajo, prevención de riesgos laborales e inserción socio laboral de las personas con discapacidad, y a la obligación de contratar a un número o porcentaje especifico de personas con discapacidad, y que me obligo al cumplimiento de todo ello. En.....,a.....de….....de 20..... Firma

3. ERANSKINA. A artxibo elektronikoan sartu beharreko giza baliabideak eta baliabide materialak atxikitzeari buruzko eredua.

KONTRATUAREN XEDEA BURUTZEKO HORRETARAKO NAHIKOAK DIREN GIZA BALIABIDEAK ETA/EDO BITARTEKO MATERIALAK ERABILTZEKO EDO XEDATZEKO KONPROMISOARI BURUZKO ERANTZUKIZUNEZKO ADIERAZPENA

Jn. / And……. .... adinez nagusia, eta helbidea…… …. .... duela, PK ....., N.A.N. zk....., telefonoa..... eta e-maila..... izanik, jarduteko gaitasun juridikoaren jabe izanik, bere izenean (edo…….. .....ren ordezkari gisa, horren helbidea…… ..... izanik, PK....., telefonoa....., eta N.A.N. edo I.F.K (1) zk. .....

ZIURTATZEN DU

Kontratuaren xede diren prestazioak _____ enpresaren helburu, xede edo jarduera-eremuaren barruan daudela, bere estatutuetatik edo fundazio-arauetatik ondorioztatzen den moduan. Halaber, kontratu hori burutzeko, horretarako nahikoak diren ondorengo giza baliabideak edo bitarteko

ANEXO 3. Modelo relativo a la adscripción de medios personales y materiales a incluir en el archivo electrónico A.

DECLARACIÓN RESPONSABLE SOBRE EL COMPROMISO DE DEDICAR O ADSCRIBIR A LA EJECUCIÓN DEL OBJETO DEL CONTRATO LOS MEDIOS PERSONALES Y/O MATERIALES SUFICIENTES PARA ELLO

D / Dña…… … .... .mayor de edad, con domicilio en…… .... CP....., D.N.I. nº.....teléfono..... ....., e-mail..... en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, en nombre propio (o en representación de....., con domicilio en..... CP……....., teléfono....., y D.N.I. o C.I.F (1) nº.....

CERTIFICA

Que las prestaciones que constituyen el objeto del contrato están comprendidas en los fines, objeto o ámbito de actividad de la empresa _____, según resulta de sus estatutos o reglas fundacionales. Asimismo, manifiesta el COMPROMISO de adscribir a la ejecución de dicho contrato los siguientes medios personales o materiales suficientes para ello:

materialak erabiltzeko KONPROMISOA adierazten du:

1. Bitarteko Materialak

1.1 _____
1.2 _____
1.3 _____

2. Giza Baliabideak
2.1 _____
2.2 _____
2.3 _____

Eta horrela jasota gera dadin, **BEASAINGO MARIARATS KALEKO MENDI-HEGALA EGONKORTZEKO OBRAK** esleitzeko lizitazioan parte hartzeko, eta baldintza-agirietan eta proiektuan xedatutakoarekin bat etorriz, dokumentu hau ematen da,

Beasainen, 2021ko _____aren ___an.

Sinadura

1. Medios Materiales
1.1 _____
1.2 _____
1.3 _____

2. Medios Personales
2.1 _____
2.2 _____
2.3 _____

Y para que así conste, a los efectos de participación en la licitación para la adjudicación del contrato de **OBRAS DE ESTABILIZACIÓN DE LA LADERA DE LA CALLE MARIARATS** , y de acuerdo con lo dispuesto en los pliegos y proyecto, se emite el presente documento en

Beasain, a _____ de _____de 2.021.

Firmado